

Katalan literatura eta erlijioa



onserrat'en (1910), *Ezkerretik*: Rouca, Roca, Mistral, Quintana, Balaguer, la, Bonaparte, Wyse, Ferrer, Bignedal, Runieax, Llorente eta Paul Meyer.

Azken urte hauetan katalan idazleak bizi-bizi ari dire lanean. Gaurko nere jardun honetarako gai jakin bat aukeratu dut: zer diote idazle horiek erlijioari buruz, zer pentsatzen ote dute arlo honetan?

Elkarrizketarako hain zuzen gizon egoki bat idoro dut: Joan TRIADU jauna. Baina aurkez eta presenta dezaizuedan solas-laguna. Joan Triadú poeta eta kritikoa da. Ribes del Freser-en jaio zen eta laister gizaldi erdia beteko du. Hizkuntza klasikoetan lizenziatu zen, eta Liverpool-go Unibersidadean jardun zen irakasle bezala 1948-50 urteetan. Gaur-egun CICF irakas-etxean zuzendari tekniko da eta "Serra d'Or"-en zuzendari-kontseillukoa "Ariel" errebistaren fundatzaileetakoa izan zen.

Argitara eman dituen lanik ezagunenak hauek ditugu: *Antologia de la poesia catalana* (1951), *laister ingelesez emana*: *Anthology of Catalan Lyric Poetry* (1953), *Antologia de contistes catalans* (1950). **Kritika barnean liburu ezagunak ditu**: *La poesia segons Carles Riba* (1954), *poeta haundi honetzaz eman den istudiorik onena*, *La literatura catalana i el poble* (1961), eta *Llegir com viure* (1963). **Camus, Faulkner, Hesse, etab. ere aztertu ditu**. *Pindaro eta Shakespeare ere katalanera jarri ditu*. *Olerkari bezala Endimió argitaratu zuen 1948-an, eta hizlaurko lirikaz El Collsacabra 1956-an.*

Triadú-k literatura bere kultura, soziologia eta politika ingurumarian ikusi du beti. Idazle eta intelektualek herriaren etorkizun-barnean duten zeregina erakutsi nahi izan du Triadú kritikoa.

Joan Triadú jaunak CICF-etxean duen despatxuan hartu nau. Lan-tarte batean eratu dugu gure elkarrizketa. Hemen aztertuko dugun erlijio-arazoa nondik dabilen jakin dezagun, komeni litzaziguke noski gaurko katalan literaturaren egoera, axaletik bederen, ezagutzea.

—Zenbat liburu argitaratuko dire urtero katalanera?

—400-500 bat liburu izango dire, fazi-kulo eta liburuxkak baztertuta. Hala ere ez gera —gutiagorik ere— 1939-ko mailara heldu, garai haretan 700-800 bat baitziren.

—Asko harritzen nau honek. Garai haretako mardultasuna iritxia zenutela uste nuen nik. Ez da, beraz, horrelakorik gertatzen?

—Ez, ez. Batez ere ofizialtasunik ezak eta eskola-faltak murriztu gaituzte. Garai haretan liburu asko sartzen zan Estadua-ren instituzioetan. Geroztik alde askotan moztu egin da katalana.

—Baina entsegu-idazkietan behinbat ez ote duzue harrezkero irabazi?

—Bai, hor baliteke. Orain agian gehiago dugu, gehiago eta hobeago. Bestal-

Galderak: Joseba Intxausti

Erantzunak: Joan Triadú

detik, orduan Barcelona-n sei eguneroko genituen eta hortik, batere ez izatera heldu gera. Alde haunditxo noski.

—Jakina. Eta literatura honen balioaz zer esan liteke?

—Beti izan da goren, baina behar bada oraintxe gorenena. Egoera honek zera esan nahiko luke: lehenik, gaur minoriztat idazten dela, eta bigarren, gure literatura ez dela kulturapekoa, herri txokokeriaz eginga, baizik-eta alde askotan kulturaren buru-buruan goazela. Herri xehearentzako, ordea, konsumo-literaturan atzeratuak goaz, herri horrek erdera nahiago baitu.

—Zenbat irakurle dituzue gaur herrian?

—Aukera jakin batzuetan 100.000-tara heldu gera. "Tele/Estel" asterokoak, esate baterako, zenbaki batzuetan ehun milakoren bat eman du, Pau Casals-en bitzita ematen zuen batean, adibidez. "Pacem in Terris"-en edizio bat ere hainbestera iritxi zen. Baina, normalean, asteroko on baten edizioa 25.000 aletara hel diteke.

Erljioa eta XIX gizaldiko Renaixença

—Sarrera honen ondotik goazen gure gaurko mintzakizunera. Erljio-arazoa nola erabili du katalan literaturak? Haste-ko: joan den gizaldiko Reinaxença mोगimenduak nola ukitu zuen erljio-gaia?

—Beste leku askotan bezala, gure Renaixença-ren herrialdekoitasuna, errejionalismoa, izpiritu eta erljio-aldetik jaio

zen gehienik. Joera hau lehenengo karkismuan agertu zen; gerora, asko liberaldu egin ziren, baina erljio-baloreak gordeaz oraindik, eta Renaixença-barnean ongi gordeak zeudela pentsatzen zen. Joan Fuster kritikoa esan digunez, Renaixença-ren %60 poesia nolabait ere erljiozkoa da, poesia honen erljioa axalekoa bada ere, XIX gizaldian ezagutzen dugun erljioaren antzera. Hain aipatuak ditugun "Jocs Florals" haiek begira zein lema zuten: Fe, Patria, Amor. Jomugatzat zedukan, beraz, fedea.

—Dakidanez, ordea, hemeritzigarren gizaldi horretan apaiz-gorroto bizi bat bazen Catalunya-n.

—Hori da, izan ere, beste alde. Hemeritzigarren mendeko aldizkori eta egunerokoetan ikus dezakegu antiklerikalismo hori. Ezkertierak erruz ziren gure aldean. Errepublikazale federalak, esate baterako, eta antiklerikal eta jaingogabe agertzen ziren hauek; baina oraindik fededunen indarrak isilerazi egiten zituen erljiokontrako abots horiek.

—Zure ustez orduan federalak jaingogabeak ziren?

—Batzuek bai. Baina askori gizarte-giroak ez ziren laguntzen batere beren erljiokontrako eritzirik agertzen. Izan ere, arriskutsua zen normahirentzat ateo bezela bere burua aitortzea. Hori bai, erboluzioaren ikurrinpean elizak erretzera joan behar bazen, jendea prest zegoen. Herri xumea borbor eta bero aurkitzen zen Barcelona-n, haserre horiek halako gizarte itxura oneko eta eskubitarrak menderatu arren. Herri horrek bozketa-egunetan mintza-biderik ez zuenez (botoa dirudunena zen bakarrik), legezko elektzioetan ezin agertu federalen benetako indarra.

XX mendeko erljioa

—Eta gizaldi berriak zein aldaketa ekarri zituen? Nola agertu zen erljioaren arazoa literatura berrian?

—Antiklerikalismo beltz hori samurtu egin zen behar bada. Kontraktasun bero

haren ondoren laizismua zabaldu zen. Joera hau askozaz ere helduagoa da: arrazoizaleago da, berotasun hura utzi du, Eliza baztertuta lan egin nahi du, bere bidetik ibili alegia.

—Eta besteak, fededuntzat aitortzen direnak zein aldaketa egin dute?

—Gizarte-talde hau ere bere bidea urratzen doa. Sinisten duen fedea sakondu egiten du, ez dago konforme axaleko erlijioarekin; fedegabe ta fededun, seriokiago ari dire, eta bai batzuek eta bai besteek politika-literaturak eta erlijioa alkarrengandik aparteago nahi dituzte.

Sales, gerrate baten erlijio-kontzientzia

—Gatozen gaurko idazleetara. Nola tratatzen digute erlijio-arazoa?

—Azken urteotan ez daukagu katalan literaturan erlijio-prolematikarik, Joan Sales-en "Incèrta Gloria" nobelan ez bada. Hori bai, nobela hau dugu azken hogeitamar urte hauetan eleberririk onena. Graham Green, Bernanos eta beste zenbaitek Europa-n egin duten literaturaren erara egina dago. Joan Sales dugu, beraz, erlijio-kezka hau nabarmenik eman diguna.

—Eta beste idazle katalanak zer egin dute 1939-tik honakoan?

—Han-hemen agertuko dute erlijiozko kezka hori, baina maiteago izango dute gai hori sakonki eta barnetik aztertu ga-be utzi.

—Goazen, beraz, Sales-engana. Nola mugatuko zenuke bere nobelan ematen zaigun erlijiozko hauzia. Zein da Sales-ek duen begira-bidea?

—Esistentziazkoa noski. Bizitzak ematen dio gaia, bizitzak ezartzen dio hausnarkizuna. Gerratea bukatzean, Sales galdu dutenen artean aurkitzen da, eta ezingo du onhar gerrateari eman nahi zaion gurutzada-giroa. Sales ez dago konforme Espainia-ko Elizak hartu duen

jokabidearekin, ez du uste irabazleekin ados joan ditekunik. Eztabaida hau agertzen da bere nobelan. Catalunya-ko Eliza erdibituri agertzen da: herbestean Vidal i Barraquer Kardinala, Cardó kalonjea eta intelektual asko; horiek daude alde batetik, eta Eliza ofizialena bestetik. Sales eztabaida gorri honetan aurkitzen da, eta bere nobela-pertsonajeak hortxe dabiltz burrukan: Elizarekin nahi dute bizi, baina Eliza hori ezin dute onhartu bere erruetan.

—Krisis honek eliza-gizonenganako uste-ona hausten du bakarrik, ala erlijio-fedea barrenagotik kolokarazten du?

—Krisisa historikoa da, politika-erlijioen arteko hartuemanek sortua. Gerrate-giro haretan Eliza agintariak, dirudienek, ez du katalan kultura ulertzen, eta Catalunya-ko katoliko asko herbestera doaz. Eliza-modu berriak nahi dituzte. Kontzilio-ra arte antsi eta amets hauek ez dire aseko. Hoinbeste urteetan itxadon behar-rrak, kontzientzia asko mindu ditu.

Katalan entsegua ta erlijioa


—Entsaiotan hobekiago uki ditekela erlijio-hauzia esango nuke: nola jokatu dire katalan idazleak beren entsegu-idazkietan?

—Bi talde banatu behariko ditugu: bat, erlijio-gaia ez du aipatu ere egin, alde batera utzi du, ezetikoa delako-edo noski. Ez daki horretaz ezer. Beste aldetik, berriz, erlijio-entsegulariak, a propos horretaraxe jarriak, daduzkagu: hauek urteotan serioki tratatu dute. Lambide honetan lehenbiziko Cardó kalonjea izan genuen. Harek hasi zituen era berriak. Ondotik etorri dira, apaiz eta herritar, kristau entsegulari berriak. Elizaren barnetik eta elizakide bezala ekin dute: Jaume Lorès, Dalmau, Llimona, eta Montserrat-eko fraideak, esate baterako.

—Horiek noski apologetikatik datoz idaztera; baina literaturatik bertatik datozenak zer esan dute Jainkoaz, erlijioaz?

—Horiek ez dute gaia erabili. Erlijio

MOSSEN CINTO VERDAGUER (1845-1920), katalan pizkundearen olerkari nagusia.



hauzia ez dutela beren jakintza-barnear sartu esango litzake.

—Beraz, Unamuno batek, norbait aipatzeko, erabili zuen Jainkoarekiko zalantza eta hausnarketa gordin hura ez ahal da agertu zuen literaturan?

—Ez, unamunotiar kezka nabarmen hori ez da ageri. Don Migel-en erara ez da planteatzen gure artean. Gizaldi-hasieran beharbada bai; baina orain, entseguetan behintzat, ez da horrelakorik azaltzen. Honetan, fededun eta gabeak garbi banatu dire, esan dudan eran. Idazleek, halako lotsa-begirune bat izan dute beren erlijio-pentsakera agertzeko, ba-koitzak bere barne-munduan erabaki nahi izan du arazoa.

—Eskerrik asko. Bide desberdinetatik bada ere, historia-zehar gure herriak helburu berdintsuetara iritxi beharko du. Gure herritasunarekiko lantxoak ba ditugu, baina ez dut uste euskeraz oraindik herrian ditugun erlijio-kezkentzat behar-

ko dugun literaturarik sortu dugunik. Zuen gaurko lanak, gu ere geurera bultzatzen gaitzala.

HORARIO de MISAS

| | |
|---|--|
| EN LA BASILICA | 6 |
| | 6,30 |
| DIAS FESTIVOS | 7 |
| | 7,30 |
| | 8,15 |
| | 9 |
| | 9,45 |
| | 10,30—cantada |
| | 12,15 |
| | 1 |
| | 18,30 |
| Los meses de invierno (de noviembre a abril) la Misa vespertina se celebra a las 17,30. | |
| EN LA CRIPTA | EN URBIA |
| 9,30 | De mayo a octubre, ambos inclusive, una Misa a las 11. |
| 11,45 | |
| DIAS LABORABLES | 6 |
| | 6,30 |
| | 7 |
| | 7,30 |
| | 8 |
| | 8,30 |
| | 9 |
| | 12 |

Desde julio hasta mediados de octubre, también a las 10 y 11.

Los meses de verano, Misa vespertina, a las 19,30 y Rosario.